


Noaia !!



Aurrekontua prestatzen
hasi da udal gobernua



Olatz Altuna, espetxean
bidegabekeria bat gehiago

MAHUKA

arropa denda

-%20



Etxebeste, 3 · USURBIL · ☎ 943 361 106

Otar-Goxo

Elkagaiak



* (J.I.) - Artzaineko izendapena

1. Otarra

"Clayrot" kriantza botila ardoa
Ameztai txakolin botila
Urteaina sagardo natural botila
Ezku-iberiko paletilla 100gr
Ezku-iberiko solomoa 100gr
Ezku-iberiko txorizoa 100gr
Idiazabal Gazta "El pastor Vasco" (J.I.)
Foie zatidun Bloc medalloia
"Mendivia" esparrago lata
Gula potoa
"Eceiza" turrroi artzainoa

60€

2. Otarra

"Marqués del Puerto" kriantza botila ardoa
Ameztai txakolin botila
"Sumarroca" Cava botila
Ezku-iberiko urdaiazpikoa 100gr
Ezku-iberiko solomoa 150gr
Ezku-iberiko txorizoa 100gr
Erronkaniko Gazta (J.I.)
Foie medalloia
Ahate konfita
"Gohuri" Tipula-saltsa potea
"Lorea" Kantauriko hegaluze potea
Lodosako "Catedral" Piper pikilo potoa (J.I.)
"Mendivia" esparrago lata
Gula potoa
Piku lehorren potoa
"Eceiza" turrroi artzainoa

100€

3. Otarra

"Haustino Livera" erreserba botila ardoa
"Clayrot" kriantza botila ardoa
Ameztai txakolin botila
"Sumarroca" Cava botila
Ezku-iberiko urdaiazpikoa 150gr
Ezku-iberiko solomoa 150gr
Ezku-iberiko txorizoa 100gr
Idiazabal "Arenburu" Gazta (J.I.)
Te ota Jongibru dun Foie medalloia
Ahate urdaiazpikoa
"Armaspido" Ontto potoa
"Lorea" Kantauriko hegaluze potea
"Lorea" Kantauriko antxo potoa
Lodosako "Catedral" Piper pikilo potoa (J.I.)
Lodosako "Catedral" Esparrago potoa (J.I.)
Gula potoa
Piku lehorren potoa
"Eceiza" turrroi artzainoa

140€

ZUBIAURRENA, 2 · USURBIL · TEL. 943 36 55 81

Albisteak iruditan !!

Carlos Jimenez, Kirol Argazkien Lehiaketan saritua

Kirologi Fundazioak, Gipuzkoako Argazkilarien Elkartearekin lankidetzan, Kirol Argazkien Lehiaketa antolatu du urtero. Lehengo astean egin zen VII. Argazki Lehiaketaren sari banaketa. Bi sailetan banatzen zen lehiaketa: koloretako argazkiak bate-tik; txuribeltzekoak bestetik.

Carlos Jimenez usurbildarra hirugarrena izan da, txuribeltzeko lehiaketan. Amador Granado txirrindulariari eginiko argazki batekin irabazi du sari hori. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kiroletako zuzendari Iñaki Ugartebururen eskutik jaso zuen saria Carlos Jimenezek.



CARLOS JIMENEZ, KIROLGIK EMANDAKO SARIA ESKUETAN.

Noaua !!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 EGUZKITZALDEA - 20.170 USURBIL
 943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publicitate@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregerai.
 Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!K IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

OLATZ ALTUNAREN ATXILOTZEA	5. OR.
KRONISTAK KALEJIRAN	6. OR.
KARMELE BENGOETXEAREKIN SOLASEAN	8. OR.
UDAL AURREKONTU PROPOSAMENA	12. OR.
LARUNBATEAN, ODOL EMAILEEN EGUNA	16. OR.
SOHÛTAREN ALDEKO OTARRA	17. OR.
ANDATZA MENDI ASTEA	18. OR.



Usurbilgo Udalak



Euskal Herrerak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
 Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



UNAI AGIRRE

Herriak du hitza

Guztiori bezala, urtea aurrera joan ahala, opor baten premia ere iritsi zitzaidan. Eta lasai asko, giroa aldatu asmoz, Isaba aldera abiatu ginen. Eguneroko dinamikarekin apurtu nahian, edo. Baina Larra aldera igotzen, hangoa ere hemengo gizartearen isla besterik ez zela konturatu nintzen. Babestutako natur gunea zena, orain berriz turismorako gunea eta eski estazio. Han ere hainbat lagun ibili dira lanean haien aurrekoek utzitako ondasun naturala babestu asmoz. Baina neoliberalismoaren diru goseak (batzuentzako gosea, besteentzako dirua) bere proiektua aurrera ateratzea lortu du, herriaren gainetik. Zubietara itzultzean, bertako errealitatea zuzenean agertu zitzaidan. Donostiako Udalak Zubietako lur erreserbaren proiektua (espropiazioaren aurre pausoa) plaza-ratu du, eta azaldu zertarako izango den: Poligono industriala, Makrokartzela eta Kuartela ere! Hau noski erraustegirako bidea izango litzatekeenaren inguruan! Desiragarri ez direnak Zubietara ekartzen jarraitzen badute, Odon bera ere ekarriko

digute azkenean! Baina badira herriaren aldeko ekintzak ere. Izan ere, badirudi Usurbilgo udala zaborra kudeatzeko sistema alternatiboak martxan jartzeko ahaleginean ari dela. Eta ez dezagun ahaztu, pauso hau erraustegi zein zabortegeia bertan behera uzteko ezinbesteko baldintza dela, eta gu guztion esku dagoela. Guztiok zabor organikoa txukun bananduta, zaborra zena lehengai bihurtu dezakegu. Honekin, eta ez dezagun ahaztu, bakarrik honekin lortuko dugu erraustegia atzera botatzea. Ez genuke inoiz ahaztu behar soilik antolatutako herriak lor ditzakeela helburu handiak. Horregatik hain zuzen saiatzen dira gizarte mugimenduak desaktibatzen, kriminalizatzen, errepresaliatzen.

Zoritxarrez hau lehengo ostiralean argi eta garbi ikusi genuen, 18/98 kasuko inputatuekin. Batzuk batean, besteak bestean gabiltza gizarte justuago baten alde. Horregatik hemendik nire besarkadarik handiena luzatu nahi diet atxilotutakoei. Eta bereziki muxu bat Olatz Altunari.

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubada - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

Hemeroteka !

Errealitateak fikzioa gainditu du

Epaiketaren lehen egunean, epaimahaiak defentsaren hainbat eskaera bata bestearen atzetik atzera bota zituenean, auzipetuetako batek kazetarien eserlekuetara begiratu eta, ezpainak urrutitik irakurtzeko moduan mugituz, gertatzen ari zena bi hitzetan laburbildu zuen: «Juicio sumarísimo». Burgosko prozesua zuen, nonbait, gogoan epaiketaren lehenengo egun hartan.

Bi urte geroago, auzipetu hura giltzapean dago, akusatuen aulkian berarekin batera eseri ziren beste 45 kide bezala. Batzuk, egunkari bateko administrazio kontseiluko kide izan zirelako edo, kazetariak izanik, egunkari horretan ardurak zituztelako; beste batzuk, sortu orduko auzitegiek desegin egin zuten erakunde politiko bateko kide izan zirelako; beste hainbat, nazioartean euskal gatazkari buruzko informazioa zabaltzeko helburua zuen elkarte batean aritzeagatik; eta besteak, herri mugimenduen bilgune izateko sortu zen fundazioko partaide izateagatik.

Urte eta erdi iraun zuen epaiketan fiskalak edo beste akusazioek ez zuten

inoiz arma edo indarkeria konturik atera. 126 egunetan 203 auzi saio egin ziren, eta akusazioek ez zuten inoiz erakutsi Egin, Ekin, Xaki eta Joxemi Zumalabe fundazioak zertan lagundu zioten ETARI, noiz bete zituzten ETAREN aginduak, lau erakunde horietako kideak ETAKO kide direla ondorioztatzeko. Akusazioek ez zieten auzipetuetako inori ETAKO kideren bati laguntzea leporatu, ez erakunde armatuan inoiz ezertan parte hartu izana leporatu.

Ez. Komunikabideez aritu ziren epaiketan; eta herri mugimenduez, desobediencia zibilaz, gatazka politikoaz, nazio eraikuntzaz, hizkuntza politikaz, ogasunaz, publizitateaz, enpresa batzuen estatusun ekonomikoez, bakailao salmentaz, mus txapelketez, bidaia agentziez...

Inma Berriozabal une honetan espetxean baldin badago, Untzorri Bidaiak agentzian lanean aritu zelako dago. Joxean Diaz Urrutia, berriz, Gadusmar enpresaren bitartez bakailao salmentan aritu zelako Kuban, eta han bi errefuxiatu izan zituelako bazkide. Jose Luis

Elkoro berriro kartzelarako bidean dago, Egin argitaratzen zuen enpresako Administrazio Kontseiluko presidente izateari baiezkota eman ziolako. Jexux Mari Zalakain une honetan ziega batean dago EHUko Informazio Zientzien Fakultatean irakasle zelarik Orain-en Administrazio Kontseiluan sartzeko eskatu ziotenean laguntzeko prestutasuna izan zuelako. Fernando Olalde preso hartu dute herentzian jasotako dirutza herri mugimenduentzako fundazioa sortzera bideratu zuelako, eta fundazio horrek desobediencia zibilaren fenomenoak ikertu zuelako, beste gai askoren artean. Eta Mikel Zuluaga espetxerako bidean da, Joxemi Zumalabe Fundazioaren aurkako polizi operazioaren ondoren aitortu zuelako desobediencia zibilar buruzko Piztu txostena berak idatzi zuela, txosten hura ETARENA ez zela frogatze aldera.

Horrela, 46 arte. Ez armarik ez ekin-tza armaturik. Baina denak ETAKOAK, ETAKOAK zirela jakin gabe (...).

**Imanol Muruaren analisisa,
Berria egunkarian, 07/XII/01.**

Bidegabekeriak ez du etenik

Espainiako Auzitegi Nazionalak 18/98 auzian epaitutako 46 kide atxilotzeko agindua eman zuen aurreko ostiral goizean. Epaia kale-ratu gabe egon arren, auzitegiak akusatuak aurrez atxilotzea erabaki zuen, sententzia laster kaleratuko zuela eta auzipetuek ihes egiteko arrisku handia zegoela argudiatuta. Baina atxilotetak hasi ziren unean, Olatz Altuna lanean zen. Epaiketak iraun zuen 16 hilabete haietan bezalaxe; epaiketaren ondorengo azken bederatzir hilabete hauetan bezalaxe.

Atxilotetak hasi ziren unean, Olatz Altuna Donostian zen prentsaurreko eskaintzen. Soziolinguistika Klusterreko lankideekin batera, Euskararen Erabileraren V. Kale Neurketak utzitako datuak eta ondorioak aurkezten ari zen.

Goizeko lanak bukatu eta gero, arratsalde partean Joxemi Zumalabe Fundazioaren egoitzara hurbildu zen. Fernando Olalde atxilotu zuten unean hantxe zen Olatz, Carlos Trenor eta Mikel Aznar auzipetuek bezalaxe. Baina poliziek ez zuten Olatz atxilotu. Biharamunean, libre ziren auzipetuek Donostian eskaintako prentsaurrekoan hartu zuen parte. Arratsaldeko 19:30ak aldera, etxean zela, kalez jantzitako poliziak etorri eta atxilotuta eraman zuten.

Ihes egitekotan zenak, lanean zela jaso zuen albistea. Ihes egitekotan zena etxe-



Argazkia: jaiki.org

OLATZ, ATXILOTUTA ERAMAN ZUTEN UNEAN. 9 URTEKO ESPETXE ZIGORRA EZARRI DIO AUZITEGI NAZIONALAK.

an geratu zen, polizia noiz iritsiko zain.

Lagunen eta bizilagunen babesa

Olatz Altunaren etxe inguruan zubietar eta usurbildar asko bildu ziren. Haien animoak eraman zituen Olatzek, poliziaren autoan eraman zutenean. Hala jasota dago jaiki.org webgunean zintzilikatu duten bideoan.

Olatz Altuna NOAUA! Kultur Elkarteko sortzaileetako bat izan zen; hala nola, NOAUA! aldizkariko lehen zuzendaria izan zen.

Duela zazpi urte hasi zen amesgaiztoa

Olatz Altuna 2000ko urriaren 5ean atxilotu zuten lehen aldiz, Joxemi Zumalabe Fundazioko gainontzeko auzipetuekin batera. Biharamunean aske utzi zuten, 6.000 euroko fidantza ordaindu eta gero.

Autorako azken metro horiek

Larunbat iluntzean Olatz Altuna eramatekoak zirela jakin bezain laster, bere etxe atarira hurbildu ziren senitarteko eta lagun asko. Bertan, isiltasuna zen nagusi, eta isiltasun hori etxe barruan paisanoz jantzitako bi poliziak egiten ari ziren miaketan mugimenduak baino ez zuten eteten.

Dagoeneko gertatzera zihoana jakinik, etxe barruan bezala, atarian bildu zirenak sarrerako atetik ibilgailurako bidea prest eta zabalik zuten. Pertsona bati ongi etorria egin nahi zaionean egin ohi dena. Oraingoan ordea, Olatzi azken besarkada, azken animo oihuak, azken elkartasun keinua adierazi eta azken agurra baliatzeko unea zen.

Autorako azken metro horiek oso gogorak izan ziren, tristeak. Agur injustu bat jaso behar zuelako, senide eta lagunengandik urrutiratu baino lehen. Kotxera sartu, eta ibilgailua urrundu ahala, Altunari emandako animo hitzak isiltzen zihoazen. Autoa bere bizileku paretik desagertu zenean, isiltasuna erabatekoa zen. Etxe inguruak hustu eta askok Usurbilen zortzietarako deituta zegoen manifestaldirako bidea hartu zuten. Egoera salatzeke.

Datorren astean, ordubeteko lanuztea

Atxilotetak hasi ziren egunean, manifestazioa egin zen Usurbilen. Etxerat-ek hilabeteko azken ostiralean egin ohi duen elkarretaratzea eta gero hasi zen 18/98 auzipetuen aldeko manifestazioa.

Mobilizazio gehiago iragarri dira. Abenduaren 13an ordubeteko lanuztera deitu dituzte 18/98ko auzipetuek euskal herritar guztiak. "Herri gisa erantzuteko" antolatu dute lanuztea, eguerdiko 12:00etatik 13:00etara.



ETXERAT- EK EGINDAKO ELKARRETARATZEA ETA GERO HASI ZEN 18/98 AUZIKO ATXILOTUEN ALDEKO MANIFESTAZIOA, PASA DEN OSTIRALEAN.

KALEBERRI

BEGOÑA REKONDO

Arrastalu Orion



Balearen bertsoak, kantu zaharreen Boinarrirituta, Carlos Zabala, Arrastalu, beste zeramika obra bat egiten ari da Orion, kultur etxearen atzean dagoen plazan. Oraingo honetan Carlosek garai bateko giroa irudikatu nahi izan du, baina egun zehatz batean, hau da Orioko arrantzaleek, itsasoa gertu balea ikusi eta hura ehizatzea kiatik atera zireneko unea. Irudi oso ezberdina oraingoarekin alderatuz. Izan ere sasoi horretan, itsasoa eta hondartza barrurago zeuden.

Arrastaluk hala irudikatzen du egun hori: herria kaxkoan, etxe batzuz eta elizaz osatua, itsasoa eta hondartza berriz lurtean irudikatuta egongo da, itsasertza harkaitz batzuekin osaturik; itsasoa, kantuan dioen bezala balea "mila bederatzirehun da lehenengo urtean.... balia agertu zen beatzik aldiari", bost traineru itsasoa, "bost trañeru jua ziran patroï banarekin", eta kaian, arrantzaleen emazte eta seme-alabak negarrez; malko bakoitza kaio bihurtuko da eta arrantzaleak babestera joango dira itsaso aldera. Lehen esan bezala eliza ere azaltzen da, eta



oraingo gauza berri bat bezala, Oteizaren omenez, bertan dagoen Oteizaren "La Pietà" eskulturaren erreplika bat egin du. Bukatzeko, irudi hau ondo ikusi dadin, berak diseinatutako altzairuzko hiru farol jarri ditu. Ea urte bukaerarako amaituta ikusteko aukera dugun.

ATXEGALDE

MAIALEN UNANUE

Tita!



Konturatu ere egin gabe ia joan zaigu beste urte bat! Egunen etengabeko joan etorrian ez gara ohartzeko pixkanaka egutegiaren orriak ere bukatzen doazela. Denok ditugu egunero bete beharreko ardurak: lana dela, ikastea dela, azken orduko egin beharrekoak direla...

Konturatu orduko berriz dugu urte berria gainean: hala-egun polit batean bazkaltzen ari zara etxeko sukaldean, zopa bero-beroa jaten, hotz egiten hasi baitu. Eta momentu batean burua plateretik altxatzean urtea amaitzeko hilabete soilik geratzen dela ohartzeko zara.

Errepasoa egin dut jada, balorazioa egiteko ea hurrengo urtean aurten faltan bota dudako zerbait egin dezakedan. Baina egia esan, ez zait ezer planeatzea gustatzen. Zertarako? Momentua iristean ezin dudala egin eta penatzeko? Ez, ez. Gauzak tita egin behar dira: egunerokotasun aspergarrian jausi baino, zerbait ezberdina pentsatu eta (denbora izanez gero) egin egin behar da.

Urtea tita pasatzen delako, joandako denbora berreskuratu ezin delako, nekeak alde batera utzi eta denbora aprobeztatzen ikasi beharko genuke.

SANTUENEA

PAKO AGUDO

Norberak aukera dezala

Gabonak, berriro ere iritsi da urte Gabaten amaiera eta berarekin gabonak. Garai bateko zentzua ez dutela bistan da eta bakoitzak bere erara bizitzen ditu egun hauek. Dena den oporrak direlako, kontsumitzea gustuko dugulako, dirua egiteko edota familia elkartzeko gabonei bizkarra emanda ezin gara bizi.

Gure auzoan jaiotza lehiaketa martxan da dagoeneko eta hilaren hamabostean Josune Aranbururekin gabon kantak entzuteko eta kantatzeko aukera izango dugu. Beraz, Olentzerorekin batera abestuko dugun eguna iritsi bitartean badugu entsaiatzeko aukera. Bestalde, Santo Tomas egunean ere izango da ospakizunik auzoan.

Dena den Gabonetako ekitaldiez gain, datorren aste-bukaeran ere haur eta gazteentzat zenbait egitasmo antolatuta dituzte elkartean. Ostiralean Ixabel izango dugu ipuinak kontatzen, larunbatean Klown ikuskizuna eta datorren astelehenean makilaje tailerra gaztetxoentzat.

Egun hauek aprobeztatzea nahi duzuenetako baina, ez dira txarrak urtean zehar egin ez ditugun gauzak egiteko eta neguaren epeltasunaz gozatzeko.



ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Mina



Amari alaba kentzea zer den ez dakit. Alaba eta aitari ama kentzea zer den ere ez dakit. Eta ez dut jakin nahi.

Olatz ama, Olatz alaba, Olatz bikotekide, Olatz ahizpa, Olatz izeba, Olatz lagun, horrela ikusten dut nik Olatz. Eta Olatzi inguruko denak kendu dizkiote. Eta Olatz denoi kendu digute. Eta min egin digute, min bizia.

Mina. Eta beldurra. Izan ere, argi hitz egin dezagun: sasira doanak badaki nora doan eta non buka dezakeen; poliziak ere badaki non dagoen, zein den bere lana eta zein arrisku dituen; ezker abertzaleko alderdi, erakunde eta kargu politikoetan sartzen denak ere badaki, soilik hitza erabilia ere, demokratikotik gutxi duen estatu honetan, azken urteetako dinamika ilegalizatzaileen ondorioz non buka dezakeen. Baina, eta Olatzek? Olatzek ba al zekien ba Zumalabe Fundazioan lan egiteak 9 urteko espetxe zigorra ekarriko ziola? Egin eta Euskaldunon Egunkariaren sortzaile eta langileek ba al zekiten ba ataka gaizto honetan egongo zirela? Alberto Friasek ba al zekien ba Garoñako zentral nuklearren kontra eta ingurumenaren alde aritzeak 9 urteko espetxaldia ekarriko ziola?

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Jolas berrien kanpaina



Garaiak hala agintzen duela eta, jakin badakigu denok datozen egunetan aspertu galanta hartzekotan gaudela telebistako iragarkiak medio. Baina, ez da hori publikitate egiteko modu bakarra. Azken aldian modan jarri da jolasen “demostrazioak” egitekoa, hau da, errealitatea jolas bihurtzen dute batzuek.

Lehen jolasean bi talde egongo dira, 3. munduko haurrak direnak eta lehen munduko pertsonak. Lehen mundukoak (taldeko liderrak normalean) herrialdeka banatuak egongo dira eta haurrak berriz denak sakabanatuak. Helburua ahalik eta haur gehien harrapatu, hauek moztaratu eta beren herrialdeetara eramatea izango da. Haur kopuru haundiena lortzen duen herrialdea izango da irabazlea.

Bigarren jolasean bi talde eta moderatzaile bat egongo dira. Gutxi batzuk (taldeko liderrak normalean) nagusiak izango dira eta gainontzeko guztiak morroiak (nahita edo gabe). Nagusi bakoitzak ahalik eta morroi gehien harrapatu behar ditu baina horretarako moderatzaileak jarritako arauak bete behar ditu. Morroi gehien lortzen dituen nagusia izango da joku honetako irabazlea.

Pentsatzen dut jolas hauen berri izango zenutela eta esan nire esku balego, jolas biak merkatutik kendu egingo nituzke-la, baina noski, beti dago horrelako jolasak gogoko dituenik!



Eta guk? Ba al dakigu ba guk zer ekarriko digun euskaren aldeko mugimenduetan aritzeak? Edo erraustegiaren kontra aritzeak. Edo NOAUA!n idazteak...

Mina, beldurra eta amorrua. Gorrotoak baino maitasunak ematen ditu fruitu ederragoak eta erabil dezagun burua uzta lehenbailehen jasotzeko. “Zaindu Xabier eta Malen!”. Hori izan zen Olatzen azkeneko oihu gordina. Amarik gabeko etxeak hotza behar du. Badugu lana Xabier eta Malen goxatzen.

AGINAGA

M^oANGELES ARRUTI

Abendua eta jaiak

Aabendua izango dugu igande eta jai Agehien dituen hilabetea. Hemen aipatzen dizkizuet nik gehien gogoratzen ditudanak:

Iean San Eloi, Mekaniko eta karrozeroen eguna. 4an Santa Barbara, tximista eta trumoiaren eguna. 6an San Nikolas, Orioko festak. 8an Imakulada eguna (nire garaian, elizan “Hijas de Maria” egiten ginen jaunartzen genuen urtean). 10ean Loreto amabirjinaren eguna. 13an Santa Luzia, jostunen eta itsuen eguna. 18an Esperantzako amabirgina (askotan behar izaten duguna). 21ean Santo Tomas, txistorra jateko eguna. 22an (diru) Santua, loteriaren eguna. 24an Gabon gaua. 25ean Eguberri eguna. 26an San Esteban Txiki eguna (San Esteban egun haundia abuztuak 3an). 28an Inoxente eguna, adi ibiltzeko eguna. 31n San Silbestre, hilabetea eta urtea bukatuko dituen eguna.

Seguru asko gehiago izango dira aipatu gabe utzitakoak. Hau da hau tripa festa datorkiguna, gutxiegi eginda ere gehiegi egingo dugu beti bezala.

Bide batez, dei egin nahi diet Gabon eskean ateratzeko gazte eta helduak, ez daitezela lotsaturatu geratu. Guk gure aldetik gaztealdian ikasitakoak gogoratuz han izango gara laguntzeko. Ondo izan eta Urte berri on!



Karmele Bengoetxea, gizarte gaietako zinegotzia

“Berdintasunerako Plana osatu nahi dugu legealdi honetan”

Ilusioz ekin dio lanari. Legealdi honetan, Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika batzordeko arduraduna izango da Karmele Bengoetxea, EAE-ANVko zinegotzia. Eguneko Zentroa asteburuetan zabaldu, herrian zahar etxe bat eraikitzea eta Berdintasunerako Plana bideratzea izango dira bere batzordeak izango dituen lehentasunak.

NOAUA! Ongizatea, Emakumea eta Gizarte Politika batzordean arituko zara lanean. Zeintzuk izango dira batzordearen lehentasunak? Beste era batean esanda, zeintzuk dira aurrera eramanez nahi diren ekimenak, helburuak...

Karmele Bengoetxea. Gizartean izugarriko garrantzia daukate batzordean lan-tzen ditugun atalek: bai bizi kalitatea hobetzeko helburuz Ongizatearen atalak, bai gizon eta emakumeen aukera berdintasuna lortzeko egin ahal den guztiak, bai inmigrazioa eta larrialdi egoeran daudenei zuzendutako ekimenek ere.

Guk aurten bi lehentasun zehaztu ditugu. Geroz eta hirugarren adineko herritar gehiago ditugu eta horrek behar-arrak areagotzen ditu. Zentzu horretan, horri aurre egin nahian bi neurri hartu ditugu jada: batetik, etxek etxeko zerbitzua hobetu dugu, menpekotasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetu nahian (diru eta baliabide gehiago bideratu ditugu), eta, bestetik, eguneko zentroa asteburuetan ere zabaltzea erabaki berri dugu. Hala ere, gure helburua herrian bertan zahar egoitza (erresidentzia) zabaltzea da, herriko zahar asko herritik kanpoko egoitzetan baitaude, hemen zerbitzu hori ez dugulako. Eta hutsune horri aurre egiten saiatuko gara legegintzaldi honetan, edo behintzat lehen urratsak ematen hasi nahi dugu.

Eta, bestetik, legegintzaldi honetan bultzada berezia eman nahi diogu emakumearen atalari, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna baitugu helburu.

Emakumeok jasaten dugun diskriminazio estruktural eta aukera berdintasun ezari aurre hartzeko, hainbat neurri aurreikusi ditugu hurrengo urterako: Berdintasunerako teknikari bat hartuko dugu (2008ko aurrekontuetan diru partida aurreikusi dugu), eta gero emakumeen egoera agertuko duen azterketa soziologikoa egin nahi dugu. Hain zuzen, azterketa horretan oinarrituz, Berdintasunerako Plana osatuko dugu.

N. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako kanpaina egin berri duzue. Gai honen inguruan, sentsibilizazio kanpainak ere beharrezkoak diren seinale, ezta?

K. B. Gaur egungo gizarte eredu patriarkalaren eraginez, bizitzaren esparru guztietan emakume eta gizonen arteko botere harremanak hierarkikoak dira, eta harreman eredu horren ondorioz, emakumeok menpekotasuna, bazterketa, zapalketa pairatzen ditugu, besteak beste. Emakumeon kontrako indarkeria, beraz, botere harreman zapaltzaile horien ondorio gordinena da.

KARMELE BONGOETXEA

“Azkenaldian, sexu erasoak salatu dituzte bi emakumek (...). Egoera hori ere bizi dugu gure herrian bertan, eta ez dugu ikusezin egin nahi”

Egoera hori Usurbilen ere bizi dugu. Iaz herriko bost emakumek salatu zituzten tratu txarrak, eta aurten beste bostek. Emakume batzuk babes neurriak dituzte, gainera. Azkenaldian, gainera, sexu erasoak ere salatu dituzte bi emakumek. Eta egoera horri erantzuna eman nahi diogu behingoz Udaletik. Egoera hori ere bizi dugulako gure herrian bertan, eta ez dugu ikusezin egin nahi. Aurten, esaterako, adierazpen instituzionala bultzatu dugu, eta NOAUA!n bertan ere sentsibili-



KARMELE BONGOETXEA ZINEGOTZIA.

zateko publizitate orri bat atera dugu. Baina hori gutxi da, eta, gainera, urte osoan zehar egin behar da lan emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko. Zentzu horretan, eraginkorra, integrala eta iraunkorra izango den erasoan kontrako plan bat onartu nahi dugu. Berdintasunerako teknikaria izateak ere lan hori erraztuko du.

Sentsibilizazio kanpainak

Gure ustez, plan hori eraginkorra izateko, egungo izaera asistentziala gainditu behar da, eta eraso gertatu ondorengo neurriez gain, aurretiazko neurriak ere hartu behar dira. Batez ere, hezkuntza eta sentsibilizazio arlokoak. Asmoa dugu tailerrak antolatzea, hitzaldiak eta abar... Udalak tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei berehalako erantzuna eman behar die, eta nora deitu, nora jo, Udalak ze zerbitzu eskaintzen dituen... horren inguruan informatu behar da, eta informazio hori eskuragarri egon behar du edozeinentzat, eta lan hori ere egin nahi dugu. Lan asko dago egiteko, eta pixkanaka egingo dugu.

Urtarrilean hasiko dira

Eguneko Zentroa asteburuetan ere zabaltzen

NOAUA! Eguneko Zentroa asteburuetan ere zabalduko dela erabaki zen udalbatza plenoan. Dena den, neurri hori ez da indarrean sartu oraindik. Aurreratu al daiteke noizko izango den Eguneko Zentroa asteburuetan ere martxan?

Karmele Bengoetxea. Berez, asteburuko zerbitzu berria azaroan bertan martxan jartzekotan ginen, baina tramite burokratikoak medio, datorren urte hasieran zabalduko da zerbitzua. Momentu honetan asteburuetan sei pertsoneri eskainiko zaie zerbitzua, gerora zabaltzeko helburuz. Izan ere, gaur egun txiki geratu zaigu Eguneko Zentroa, eta plaza kopurua handitu nahi dugu. Eskaerari erantzun egokia eman ahal izateko, goiko solairua ere zerbitzu honetarako baliatzea pentsatzen ari gara, eta, une hauetan, proiektua lantzen ari gara.



ISO 9001 BAT ZIURTAGIRIA JASO BERRI DU EGUNEKO ZENTROAK. URTARRILETIK AURRERA, ASTEBURUETAN ERE ZABALIK IZANGO DA.

“Zahar Egoitza udaberri aldera ireki ahal izango dela pentsatzen dugu”

NOAUA! Artzabalgo Zahar Egoitza martxa onean doa, itxuraz behintzat. Noizko irekiko den aurreikusi al duzue?

Karmele Bengoetxea. Guztiok dakigun bezala, Artzabalen lehen Sagardo Museoa egin nahi zen, baina aurreko udal taldeak atzera

bota zuen proiektu hura. Orain Zahar Egoitza izateko helburuarekin ari da eraikina eraberritzen. Hemendik aurrera eman beharreko urratsak abiada egokian ematen badira, Zahar Egoitza udaberri aldera ireki ahal izango dela pentsatzen dugu.



txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak

TABERNA

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

2008rako zabor politika eta Ordenantza Fiskalak, bideratuta

Iazko Kontu Orokorra eta 2008ko Ordenantza Fiskalak behin betirako onartu dira. Pasa den azaroaren 27ko ohiko pleno saioan adostu zituzten udal ordezkariak. Urte berrirako zabor politikaren ildo nagusiak ere azaldu ziren.

EAE-ANV-ko zinegotzi Imanol Azpirozek aurreratu zuen. 2008an etxex etxeko bilketa bultzatu nahi da eta horrekin batera, konpost gune bat sortu herrian bertan. Horiek dira zabor politikari dagokionean, datoren urtean landu nahiko lituzketen ildo nagusiak. Asmoa, zabortegien beharrak gutxitzea eta epe luzera "zero zaborra" mailara iristea litzateke.

PIGRUGa 2002an onartu bezala ontzat ez ematea proposatzen da, alternatibak garatzea zailtzen duen tramendu finalista onartzen duelako, zaborraren zati nagusia erretzea duela helburu edota zabor bilketa nahastua ahalbidetzen duelako. Gaia denon ardurakoa delako, Udaletik usurbildarrak kudeaketaren protagonistak izatea nahi dute.

Erreakzio ezberdinak

Joxe Ramon Furundarenak (Aralar) ontzat jo zituen Azpirozek emandako zehaztapenak. Jarrera horri eustea eskatu zuen, erabakiak hartzen joan ahala, ahalik eta informazio gehien ematen jarraitzea alegia.

Atzera begira jarri zen, EAko Luismari Ormaetxea. 2002an gaia eztabaidatzeko aukera izanda, deialdiak parte hartze eskasa izan zuela gogorarazi zuen eta herriaren eta Udalaren artean zatiketa dagoela aipatu. Erraustegirik gabeko zabor kudeaketa posibletzat jotzen du Ormaetxeak, zabortegiak jarrita.

PSE-EE-tik Amaia Goyaranek une bakoitzean erabakirik onena hartzearen aldeko apustua egin zuen. Nahiz eta etorkizunean, hanka sartu dela uste izan. Gaia arma politiko gisa era-



IAZKO KONTU OROKORRA ONARTU ZEN. BAITA URTE BERRIRAKO ORDENANTZA FISKALAK ERE.

biltzea utzi eta gehieneko birziklatzearen alde agertu zen.

EAE-ANV-k eta Aralarrek alde bozkatu zuten, EA-k aurka eta PSE-EE abstenitu zen. EAJ-PNV-ko zinegotzia ez zen plenoan (gaixorik dago).

Ordenantza Fiskalak onartuta

Behin betirako onartu zen 2006ko Kontu Orokorra, jendaurrean egondako denboran inork erreklamaziorik ez baitu aurkeztu. Beste hainbeste gertatu zen 2008ko Ordenantza Fiskalekin ere, besteak beste, Usurbil Futbol Taldeak aurkeztutako erreklamazioa onartu ostean. Hain zuzen, kirol taldetik Haraneko instalakuntzen alokairu prezioak, erabiltzailearen arabera finkatzea eskatzen zen. Lehenasuna usurbildarrei emanek. Erabakia onartu zen, EA abstenitu arren. Ormaetxearen esanetan, gaia atalka ez, bere osotasunean bozkatu izanagatik.

Aldaketak Eguneko Zentroan

Eguneko Zentroak eskaintzen duen zerbitzuan aldaketak izango dira aurrerantzean. Azpimarragarriena, asteburuetan ere zabalik izango dela laster. Horrek guztiak Udalak eta Eguneko Zentroa kudeatzen duen G.S.R. enpresak sinatutako hitzarmena aldatzea dakar. Egiteko hori bideratzea adostu zuten aho batez udal ordezkariak.

ARITZ GORRITI

Abenduaren 6an lan egitera deitu du Udalak

Udaleko atek irekita egongo dira ostegun honetan, abenduak 6. Hala jakinarazi da bando bidez. Egun horretan ezer ospatzekorik ez dagoenez, lan egiteko aukera polita dela adierazten da bertan. Bide batez, inposatutako Konstituzioaren aurrean Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitze duen eskubidea aldarrikatu eta lan egitera deitzen da. Gogorarazten denez, aipatu Konstituzioa izan baita Euskal Herriari ezetza eman diona, herri bezala izan beharreko eskubideak ukatu eta herritarren erabakitze duen aukera lapurtu duena. Lan Egutegi propioa izatea aldarrikatzen duten eragile sozialekin bat egiten du udal bandoak.

Aldaketak Batzorde Informatzaileetan

Aurrekoan, mahai gainean Auzitako batzorde aldaketen gaiari heldu zitzaion berriro. Kirola eta Gazteria Batzorde Informatzailea deuseztatzea erabaki zen aho batez. Hain zuzen, kirolari dagokiona Kirol Patronatuak bere gain hartu baitu. Gazteria Batzordea berriz, osatua dagoen Kultura eta Euskara arloetara erantsen proposatu zen. Hori ere aho batez onartu zuen udalbatzak.

Euskal selekzioen aldeko mozioa

ESAIT-ek aurkezturiko mozioa Eere gehienoz onartu zen. Besteak beste, datorren abenduaren 29an Bilbon "Euskal Herria, nazio bat, selekzio bat" lemapean antolatutako ekimenetan parte hartzea deitzen da, eguna bera euskal selekzioaren ofizialtasunaren aldeko aldarrikapen eguna izan dadin.

Hasiera batean esan baino langile gutxiago bidaliko ditu Michelinek Gasteizko lantegira

Industria proiektu sendoa ziurtatzea eta Michelineko beste lantegietarako lanpostuen lekualdatzeak behartuak ez izatea. Horiek ziren mobilizazioen helburu nagusiak. Langileen presioak izan du emaitzik. Izan ere, hasiera batean, 71 ziren zuzendaritzak Gasteizera halaberrez bidali nahi zituen langileak. Baina lehengo ostegunean sindikatuekin egindako bileran, kopuru hori dezente jaitsi du. Soilik 11 izango dira halaberrez Gasteizen Michelinek duen lantegira joan beharko dutenak.

Azaroaren 16an Michelineko zuzendaritzak itxiztat eman zituen negoziazioak. Honen aurrean, LAB, ELA eta ESK sindikatuek negoziazioekin jarraitzea eskatzen zuten eta era berean lanuzteak iragarri zituzten. Orduerdiko lanuztea egin zuten iragan azaroaren 22an. Azaroaren 29rako ordubeteko lanuztea egitekoak ziren. Michelineko zuzendaritza prest azaldu zen negoziatzeko, baina azaroaren 29ko lanuztea bertan behera uztea eskatu zien langileei. LAB, ELA eta ESK sindikatuek bertan behera utzi zuten azaroaren 29ko lanuztea. Era honetan, negoziatzeko borondatea agertu nahi zuten hiru sindikatuek. Egun horretan bertan bildu ziren zuzendaritzarekin eta lanpostuen lekualdatzeak murriztea lortu zuten.

LANPOSTU UGARI KOLOKAN

“Egoerak larria izaten jarraitzen du, 500 lanpostutik gora desagertuko baitira”

Josu Portu LABeko kideak telefonoz azaldu zigunez, “egoera larria da oraindik baina aurrerapauso bat eman



MICHELINEK EGUN DUEN ETA ETORKIZUNEAN IZAN DEZAKEEN ITXURAREN ARTEKO ALDEA.

dugu”.

Pozik zegoen sikiera lekualdatzeen kopurua murriztea lortu zutelako. Hori izan zen behintzat, zuzendaritzak ahoz hartu zuen konpromisoa.

Izan ere, 500 lanpostutik gora desagertuko dira Lasarte-Oria eta Usurbilen artean dagoen lantegian. Horretan ez da aldaketa handirik izan.

Prentsari egindako adierazpenetan,

Jon Martin LABeko kideak CCOO eta UGTren portaera kritikatu zuen: “LAB, ELA eta ESKri esker negoziatzen jarraitu ahal izan dugu eta enpresak hasiera batean egindako eskaintza hobetzea lortu dugu”. Halaber, hiru sindikatuek egindako mobilizazioen emaitza izan da hizpide dugun aurrerapausoa.

IMANOL UBEDA _____

EAE-ANVk zuzentzen duen udal gobernua 2008ko udal aurrekontua prestatzen hasi da

Udal gobernua 2008ko udal aurrekontuaren zirriborroa osatua du. Orain, herritarrekin eta gainontzeko alderdi politikoekin partekatu nahi du. Abenduaren 10ean, gai honi buruzko informazio batzorde bat egingo da udal pleno aretoan. Batzordea irekia denez, nahi adina ekarpen egiteko aukera izango da. Udal aurrekontu proiektuaren ildo nagusiak aurreratzeko moduan da NOAUA! astekaria. Xehetasun gehiago, abenduaren 10eko informazio batzordean.

Azaroaren 29an, EAE-ANVk herri batzarra egin zuen Sutegiko auditorioan. Gai: 2008ko udal aurrekontu proiektuaren berri ematea.

OGASUN BATZORDEA

Gai hau abenduaren 10eko Ogasuneko Informazio Batzordean landuko da; deialdia irekia da”

Abenduaren 10ean astelehena, Ogasuneko ezohiko Informazio Batzordea egingo da pleno aretoan. Arratsaldeko 18:00etan hasiko den

batzarra irekia da, beraz, udal gobernua buruan duen udal aurrekontu proiektua ezagutzeko aukera izango dute udal ordezkariak, nahiz bertara azaltzen diren herritarrek. Hala nola, ekarpenak egiteko aukera izango da.

Esan dugu. 2008ko aurrekontu proiektua egingo du EAE-ANVk zuzentzen duen udal gobernua. Egitasmo hau herritarrei eta oposizioan diren alderdiei aurkeztuko zaie egunotan. EAE-ANVko kideek aditza eman digutenez, “aurreko legealdian, hainbat urtetan oso berandu onartu ziren udal aurrekontuak. Baina EAE-ANVren helburua urte hasierarako udal aurrekontua onartuta egotea litzateke”.

Lehen zirriborroa egingo dute eta jada hasi dira jendaurrean aurkezten. Herritarren hainbat ekarpen bildu zituzten azaroaren 29an egin zen herri batzarrean. Abenduaren 10eko Ogasun Informazio Batzordea ere, ekarpen gehiago biltzeko borondatez deitua izan da.

“Bertan partehartzeko dei berezia egin nahi dugu”, adierazi digu Xabier Mikel Errekondo alkateak. Baina batzordera azaldu ezin eta ekarpen horiek helarazi nahiko lituzkeen edonork, udaletxera jo dezake.



UDAL GOBERNUAK OSATUA DU UDAL AURREKONTU BERRIAREN ZIRIBORROA.

“Udal aurrekontuen onespina ez da tramite hutsa, udal kudeaketaren isla nagusia izateaz gain, udala kudeatzeko tresna nagusia da. Horregatik, partehartzeari garrantzia handia ematen diogu”, azaldu digu Agurtzane Solaberrieta EAE-ANVko kideak.

12.500.000 euro

12.500.000 eurokoa da EAE-ANVko 2008rako aurrekusi duen udal aurrekontua.

Udal aurrekontu osoaren ia %31 izango da inbertsioetara zuzenduko dena. Gainontzekoa, labur esanda, gastu arruntei aurre egiteko baliatuko litzateke. Funtzionamendua, udal langileen soldatak...

IMANOL UBEDA

Zabor organikoaren bilketa, atez ate

Atez ateko bilketa jarri nahi da Amartxan. San Markos Mankomunitatek argi ikusten da alternatibarik badagoela. Errausketarik gabe, zaborra beste era batean kudeatu daiteke. Usurbilen esperientzia berri bat jarri nahi da martxan: atez ateko bilketa. Hilabete gutxiko epean jarriko litzateke martxan.

Zutabe nagusiak bi lirateke: atez ateko zabor organikoa bildu eta kon-

postatze planta bat eraikitzea.

Konpostatze-planta eraiki

Aurrekontuetan diru-partida bat aurrekusi da horretarako. Lau finantziario iturri lotu nahi dira. Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, San Markosko mankomunitatea eta Usurbilgo udala. Gipuzkoako Foru Aldundia Usurbilen konpostatze planta bat jartzeko prest dago.



ATEZ ATE SOILIK ZABOR ORGANIKOA JASOKO LITZATEKE. GAINONTZETAKO, ORAIN ARTE BEZALA BIRZIKLATZEN JARRAITUKO GENUKE.

Potxoenea kultur eraikin bilakatu nahi da

Sutegiko eraikinaren osagarri, kultur taldeen bilgunea litzateke

Inbertsioetan, asko dira udal gobernuak aurrera eraman nahi dituen ekimenak. Besteak beste, Santueneko eskubaloi zelaia estali eta Potxoenea egokitu nahi dira.

Antolakuntza arloan, hainbat eraberri-tze egingo dira. Udarregi ikastola, Agerialdeko eraikina eta Oiardo kiroldegiko **ur-galdarak** berrituak izango dira.

Legegintzaldi Plana ere garatu nahi da. Lau urterako plana litzateke, beste administrazioetatik bultzatzen ari diren ekimenarekin bat eginez.

Webgunea martxan jarri. Dagoena martxan jarri eta gero osatzen joango litzateke, zehazten diren helburuen arabera.

Santueneko zelaia estali

Kulturgintzan, inbertsio garrantzitsuenak hauek lirateke: **Santueneko eskubaloi zelaiari aterpea** jarri. Lehen urratsak 2008an eman nahi ditu EAE-ANVk zuzentzen duen udal gobernuak. Auzo bakoitzak aterpe bat izatea da helburua. Santueneko zelai horren aterpea martxan jartzeko diru-partida bat izendatuko litzateke.

Potxoenea. Kultur Etxe bezala egokitu,

Sutegiren osagarri litzateke. Kultur talde eta elkarte oro bilduko litzuzke eraikin horrek, herriko kultur taldeak dinamizatzeko balioko luke. Balio anitzeko gelakin hornituko litzateke. Proiektua garatzeko, kultur taldeen iritzia jasoko litzateke.

Udal fototeka ere jarri nahi da martxan. Herritar guztiok erabiltzeko moduan jarri.

Zinea ere sustatu nahi du EAE-ANVk, helduentzat zein haurrentzat. Euskarazko ekoizpena eskaintzeari emango litzaioke lehentasuna.

HEZKUNTZA ARLOAN

“Dauden eraikinak hobetzeko ahalagin berezia egingo da. Udarregi ikastolako teilatua konpondu nahi da”

Hezkuntzan, eraikinak hobetzeko ahalagin berezia egingo da. **Haur Eskola** topera dago eta horrek egokitzapen bat eskatuko luke.

Udarregiko teilatua konpontzea.



KULTUR TALDEEKIN ADOSTUKO LITZATEKE POTXOENENKO PROIEKTUA.

Horri ere irtenbide bat eman nahi zaio 2008ko udal aurrekontuen bidez.

Aginagako Herri Eskolako sarrera eta parkea garatzeko asmoa ere jaso da udal aurrekontu proiektuan.

Lanbide Hastapen tailerrak (sukaldaritza eta ilea-apainketa ikastaroak). 2008an zehar jasoko du udalak Atalluko pabiloia. Lanbide hastapen ikastaro horiek, aurrerantzean, Atalluko eraikin berrian eskainiko lirateke eta Agerialden hutsik geratuko liratekeen gelak Udarregi ikastolak jasoko litzuzke.

Udal brigadak ere Atallura joango lirateke. Ugartondotik Atallurako aldaketa hori egiteko dirua ere aurreikusi da.

Alokairu soziala bultzatzea, lehentasunen artean

Udal ondarea babesteko diru partida aurreikusi da. Zentzu horretan, **lur erosketarako partida** handia gorde nahi da. 800.000 euroko inbertsioa egin nahi da. Udal ondare asko saldu da azken urteotan, urbanizagarria zein landa-lurra. Lurrak erosi bai, baina ez da saltzea aurreikusten. EAE-ANVko kideek aditzera eman digutenez, “Usurbilek bere nortasunari lotuta jarraitu nahi badu, nekazal lurrak babestu eta erosi behar ditu. Baina garenari lotuta, udalari ere komeni zaio urbanizagarri diren lurrak ere izatea”.

Babestutako etxebizitzak sustatzeko partida garrantzitsu bat aurreikusi da. Alokairu soziala bultzatzea lehentasunetako bat izango da. Ahalegin horretan,

udalak laster eskuratuko ditu **Txaramuntoazpiko 12 etxebizitza berriak**. Nori zuzenduak, zein baldintzetan... zehazteko dago baina alokairu sozialera bideratuko dira.

Maisu etxea ere horretara bideratuko da. 8 etxebizitza ditu Maisu etxeak (Udarregi ikastola ondoko etxea). Lau etxebizitza egokituta daude, bosgarrena laster hasiko dira berritzen eta gainontzekoak ere berritzeko bidean jarriko lirateke. Ongizate Zerbitzuek esan beharko dute zenbat behar diren larrialdietarako. Gainontzekoak alokairu sozialera bideratuko lirateke.

Sekañan bada Udalari dagozkion 20 etxebizitzarako lur-zatia. **Olarriondon** ere 23 etxebizitza sozial sortuko dira. Bi



MAISU ETXEA LARRIALDIETARAKO ERABILTZEN DA GAUR EGUN.

proiektu horiek bideratu nahi dira 2008ko udal aurrekontuen bitartez.

2008an, udal gobernuak zenbat **etxebizitza huts dauden jakiteko azterketa** bat egin nahi du eta, bide batez, horiek nola merkaturatuko diren zehaztu.

“Poztekoa da Sariako hezegunearen gaian, Eusko Jaurlaritzarekin bat etortzea”

Sariako hezeguna eskuratu du udalak. 2008ko udal aurrekontuetan, diru partida garrantzitsua izendatu da Sariako hezegunerako. Baina erosketarako Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza jaso du udalak.

“Poztekoa da gai honetan, Eusko Jaurlaritzarekin bat etortzea. Uste genuen erosita zegoela baina egun hauean egin da erosketak”. Hala adierazi digu Xabier Mikel Errekondo alkateak. Hezegune garrantzitsua da eta hezegunea babestu eta garatzeko proiektua ere jaso nahi da. 2008ko udal aurrekontuan diru partida bat izendatu nahi da horretarako.

Ingurugiro kontuekin jarraituz, **azpiegitura energetikoak** hobetzeko partidarik ere izango da udal aurrekontuetan.

Ur estolderiaren sarearen berrikuntza, jolas-parke berriak... Horiek ere aurreikusitako dira.

Oinez-bide gehiago

Zubietan eta Aginagan oinez-bide gehiago egingo dira. Zubietako Herri Batzarreko aurrekontuetatik bideratuko litzateke Zubietako oinez-bidea edo bide-gorria.

Eguneko Zentroa egokitu nahi da. Zerbitzu ona eskaintzen du orain baina, aurrera begira, zentroaren zabaltzea ere aurreikusitako da. Are gehiago, 2008ko udal aurrekontuetan diru partida bat ere izendatua izan da horretarako.



ZUBIETAKO HERRI BATZARREKO AURREKONTUETATIK BIDERATUKO LITZATEKE ZUBIETAKO OINEZ-BIDEAK GARATZEKO DIRU-PARTIDA.

2008an udal gobernua garatu nahi dituen egitasmo garrantzitsuenak

- Alokairuzko etxebizitzak bultzatu.
- Oinez-bideak ugaritu.
- Lur erosketak.
- Sariako hezegunearen proiektua sustatu.
- Zaborren kudeaketa alternatiboak martxan jarri.
- Nekazaritza eta Ingurumen

- teknikariaren lanpostuak berreskuratu.
- Berdintasun Planerako teknikari plaza sortu.
- Berdintasunerako Plan Integrala garatu.
- Eguneko Zentroa handitu.
- Potxoenea Kultur Etxean bihurtu.
- Udal fototeka martxan jarri.

Nekazal bideak hobetzeko diru-partida

2005ean onartutako arau subsidiarioetan hainbat puntu zintzilik geratu ziren. Zintzilik geratu ziren atal horiek Arau Subsidiarioetan jasotzeko, testu bategina aurkeztu behar du udalak Foru Aldundian. Gainontzeko alderdien eskuetan da udal gobernua egin duen azken proposamena. Udal gobernua 2008 urte hasierarako

prest eduki nahi du testu bategin hori.

Bideak hobetzeko ahalegina

Nekazaritzan, nekazal bideak hobetzeko diru-partida aurreikusitako da. Aginaga inguruan batez ere. Izpitzakoa, esate baterako. Porlanezkoa da baina bereziki bada egoera kaxkarrean dagoen bihurturik. Urkamendi inguruan bada egoera kaxkarrean dagoen biderik ere.



NEKAZAL BIDEAK HOBETZEKO DIRU PARTIDA JASO NAHI DA.

Berdintasun Plan Integrala garatzeko beste lanpostu bat sortuko da

Berdintasun teknikariaren plaza sortzea izan zen EAE-ANVren herri programan jaso zen beste proposamena. 2008 hasieran egingo litzateke lan-deialdia. Usurbilgo emakumearen gaineko azterketa sozio-politikoak bideratuko luke eta azterketa horren harira, Berdintasun Plan Integral bat diseinatu beharko luke. Planak esparru guztiak ukituko lituzke: hezkuntza, lan mundua,... Pertsona horren aurrekontua ere pertsonal gastuan aurreikusi da.

Nekazaritza eta Ingurumen teknikaria

EAE-ANVk bere herri programan Elehentasunen artean aipatzen zuen lanpostu honen berreskuratzea. Hirigintzan ere eskuartuko luke Nekazaritza eta Ingurumen arloko teknikari berriak. Hau pertsonal goari zuzendutako gastuan sartuko litzateke.

Laster plazaratu nahi da Olarriondo eta Ugartondoko etxebizitzan zozketarako behin behineko zerrenda

Duela hilabete pare bat NOAUA'n aipatu bezala, bere martxa jarraitzen dute bi etxebizitza promozio horiek. Bitartean, babes ofizialeko etxebizitzan zozketarako izena eman zutenen zerrenda aztertzen ari dira udaletxean. Espedientez espediente ari dira ikuskatze-lanetan. Urte bukararako argitaratu nahi dute behin behineko onartuen zerrenda. EAE-ANV

zuzentzen duen udal gobernua badaki "jendea zain dagoela. Maiatzean apuntatu arazi egin zitzaion jendeari eta oraindik ez daki behin behineko zerrendan onartua izan den edo ez". Urte bukararako argitaratu nahi da behin behineko onartuen zerrenda. Okerrik ez bada tartean, 2008ko udaberrian egingo litzateke etxebizitzan behin betiko zozketa.



Olarriondo

“Jostailu erabilien azoka” antolatu du Hitz Ahok abenduaren 15erako frontoian

Gehiegizko kontsumoaz ohartarazi eta jostailuen elkartruketa bultzatu. Asmo horiekin antolatu du Hitz Aho Guraso Elkarteak “Jostailu erabilien azoka”. Eguberriak ate joka direla, trukerako gune nagusian bihurtuko da pilotalekua. Hitzordua, abenduaren 15ean.

Gabonak gainean ditugu, kontsumorako joera nagusi den garaiaren atarian gaude. Besteak beste, oparitan asko gastatzen da. Horren aurrean, Hitz Aho Guraso Elkartea abenduaren 15erako proposamen batekin dator. Frontoian ospatuko den “Jostailu erabilien azoka” ekimenen parte hartzera deitzen dute. Bertan, jostailuak elkartrukatzeko aukera izango da. Etxetik momentuan era-

mandakoak pilotalekuan erakusgai izango direnengatik aldatu ahal izango dira.

Hilaren 15a baino lehen, abenduaren 10etik 13ra Sutegiko erakusketa aretoan izango dira Hitz Ahokoak, 17:00-19:00 artean. Ikastolako gurasoek eraman nahi dituzten jostailuak jasoko dituzte bertan.

Jostailuen berrerabilpena eta gazte-eren artean elkartrukatzeko ohitura zabaldu nahi dute. Ondorioz, baita jostailuei erabilpen berri bat ematea ere.

Parte hartzeko baldintzak

Jostailuek osorik egon behar dute. Bilketa egunetan emandakoa musu-truk jasoko da, nahiz eta trukean txartel bat har daitekeen. Horrekin, azoka egunean emandako jostailua



FRONTOIAN EGINGO DA
JOSTAILU AZOKA.

beste batengatik alda daiteke. CDrom, DVD eta antzekoek jatorrizkoak izan beharko dute. Azoka egunean, trukaketatan parte hartu nahi duen zortzi urtetik beherako gaztetxoek arduradun batekin egon beharko dute. Azoka amaitzean, bertan gelditzen diren jostailuak ikastolarako baliatuko dira.

Odol emaileek beren eguna ospatuko dute larunbat honetan

Zure borondateak bizitza bat salba dezake. Hori da Odol Emaileen Elkartetik, beste behin helarazi nahi duten mezua, azken urteetako emanaldi kopuru baxuenaren aurrean (275 odol-emate eta hiru emaile berri) eta Usurbilgo Odol Emaileen egunaren atarian. Emaile kopurua gutxitu dela eta odola emateak askoren bizitza salbatzeko izan dezakeen garrantziaz jabetuta, deialdi berezia luzatu nahi diete herritarrei; noizbehinka besterik ez, odola ematea ohituraz egin beharrek kontua dela.

Zorigaiztoko gertaeren aurrean baino ez omen da erreakzionatzen.

USURBILGO ODOL EMAILEAK

“Tragedia bat gertatzen denean, berehala prest gaude, baina gainerakoan, urte guztian zehar zer?”

Jarrera bera egoera ezberdin askotan errepikatzen da, eta dirudienez, baita odola ematerakoan ere.

“Zoritzarreko tragedia berezi bat

gertatzen denean, berehala prest gaude, orokorrean, odola emateko, behar berezi hori babesteko. Baina, gainerakoan, urte guztian zehar zer?” galdetzen dute Usurbilgo Odol Emaileen elkarteko kideek.

Odol ematea, ohituraz

Noizbehinkakoa ez, odola ematea etenik gabeko ekintza izan behar du elkarteko kideen ustez, errealitateak hala eskatzen baitu. “Egunero, gainezka ditugu erietxeak odolaren beharrear”, gogorazten dute. Gaixo askoren bizimodua hobetu edo haien bizia salbu izateko odolaren beharra ezinbestekoa da. Elkartetik azpimarratzen dutenez, norbere bizitzan tarte txiki bat hartzea baino ez du eskatzen odola emateak.

Eskerrak parte hartzaileei

Emaile edota babesle eta laguntzaile direnak eskertu nahi dituzte, eta hala egin ohi dute urtero. Urrian, bailarako emaileak bildu eta odola hainbat alditan eman izan dutenak omentzen dituzte. Aurten, 25 eta 40 alditan odola eman duten zazpi herritarren borondatea eskertu eta oroigarri bana eman zieten pasa den urriaren 21ean



LARUNBATEAN, HILAK 8, OSPATUKO DA USURBILGO ODOL EMAILEEN EGUNA.

Orion ospatu zuten bilkuran.

Meza eta bazkaria

Bailarako elkarteak urtero biltzen diren bezala, usurbildar odol emaileak elkartzeko eguna izendatua dute; abenduaren 8a. Aurten, larunbatarekin egokitu da.

Lehenik, Salvatore Parrokian bilduko dira. Meza saioan, zendutako odol emaileak gogora ekarriko dituzte. Bazkari baten bueltan bilduko dira gero, Atxegan. Urte berriarekin batera, ekingo diote berriz ere odol emate saioei. Horretarako, anbulategian bildu ohi dira.

ARITZ GORRITI

Buruntzaldeko udalek bultzatutako euskarazko produktuen katalogo berria aurkeztu da

Gabonak gainean ditugula, une Gezin hobean aurkeztu dute udal ezberdinetako euskara teknikariek, opari bat egiteko gida izan daitekeen euskarazko produktuen katalogoa. 0-16 urte artekoen aisialdiari zuzendutako produktuak biltzen ditu, produktu motaren edota adin tartearren arabera sailkatuta; komikiak, fil-

mak, liburuak, musika lanak, jostailu eta jokoak, aldizkariak, informatika produktuak... Lehen aldiz, Hego Euskal Herriaz gain, Lapurdi hegoaldeko hamabi herritan eskuragarri izango da. Hizkuntza eta alderdi pedagogikotik kalitatea bilatzen duten produktuak dira. Informazio gehiago, www.katalogoa.org atarian.



Igandean amaituko da Sohütako ikastolen aldeko otarra eskatzeko epea

Nafartarrak kultur taldeak, hirugarrenez, Zuberoako ikastolen aldeko kanpaina jarri du martxan. Zuberoan egindako produktuez bi otarre osatu dituzte. Horietako bat, "Ahusqui" izeneko otarra dugu. Kilo bateko ardi gazta, 500 gramo ezti, ahate giblezko 200 gramo pate eta bizkotxo poltsa batez osatua dago. 36 euroren truke eskura daiteke. Irati izeneko otarrean berriz, aipatutako produktuei, 1,70 litro patxaran botila gaineratu diote. Azken otar hau 48 euroren truke eskura daiteke.

Izena emateko, Txiristran eta Txiribogan

Bietako bat ala biak exeratu nahi badituzu, alde zuretik izena eman behar duzu.

Otarra eskuratzeko herriko bi



HERRITAR HAUEK BIDERATU DUTE ZUBEROAKO IKASTOLEN ALDEKO KANPAINA.

tabernetara jo besterik ez dago. Txiribogan edo Txiristran norbere izen abizenak eta telefono zenbaki bat utzita, kanpaina parte hartu eta otarra eskura daiteke. Izena emateko epea igande honetan amaituko da.

Mexikoko eta Panamako hezkuntza

arduradunak Lanbide Eskolan izan dira bisitan

Usurbilgo Lanbide Eskolak Mexiko zein Panamako Hezkuntza Ministeritzako ordezkarien bisita jaso zuen lehengo astean. Ordezkaritza hauen helburua Usurbilgo eskolaren eskaintza zein errekurtsoak ezagutzeaz gain eredu bilakatzen ari den

Energi Berriztagarrien Eraikina ezagutzea izan zen. Esparru honetan Lanbide Eskolaren oihartzuna urrun iristen ari da eta hori dela eta ekipamendu eta heziketa arloko akordioak adostu ahal izan dira. Mexiko zein Panaman, Usurbilgo Lanbide Eskola eredu den seinale.



MEXIKOKO ORDEZKARIAK AZARDAREN 26AN IZAN ZIREN BISITAN.



PANAMAKOAK, ALDIZ, AZARDAREN 27AN PASA ZIREN LANBIDE ESKOLATIK.

Kultur ekitaldi ugari Santuenea elkartean

Ipuin kontalaria

Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria Santueneko kultur elkartean izango da ostiral honetan, hilak 7. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da haurrei zuzendutako ipuin kontaketa.

Klown ikuskizuna

Larunbatean, hilak 8, klown ikuskizuna Santuenea elkartean: "Zakur bat ezkutaturik" obra antzeztuko dute 19:30etik aurrera. Sarrera doan.

Makilaje tailerra

Datorren astelehenean, abenduak 10, Santuenea elkarteak antolatutako makilaje tailerra hasiko da. Arratsaldeko 17:00etan hasi eta beste lau egunez luzatuko da. Mirari Iturrino profesionalak eskainiko du ikastaroa. Prezioa: 10 euro. Izena emateko honako telefono zenbakietara deitu: 943367262 edo 943365031 (Abenduaren 5ean amaituko da izena emateko epea).

Antzerki Tailerraren emanaldia Sutegin

Abenduaren 14an ostirala, Santueneko Antzerki Tailerrak emanaldia eskainiko du Sutegin, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Gabon kanten tailerra

Abenduaren 15ean, arratsaldeko 18:30ean gabonetako kantuen ikastaroa eskainiko du Josune Aranburuk Santuenea elkartean. Ondoren, pintxo goxoak.

Gabonetako antzerkia

Abenduaren 20an, arratsaldeko 18:30ean, gabonetako antzerkia haurrentzat Santuenea elkartean: "Lore eta Ikatz" du izena antzezlanak.

Datorren astean hasiko da Mendi Astea

Duela aste batzuk Andatza K.E.-ak deitutako Bidaia eta mendi irteeren argazki eta bideo lehiaketak ez du erantzun faltarik izan. Lanak hilaren 11tik 16ra antolatu duten Mendi Astean ikusiko dira. Mendi ibilaldietara edo meteorologiaren hitzaldira joatea dira proposatzen dituzten beste aukerak.

Adarra, Abaguneak, Senegal edota Txile. Lehiaketara aurkeztutako lanek esker, gertuko zein urrutiko parajeez gozatzeko aukera eskainiko da Andatza K.E.-ak antolatutako Mendi Astean, abenduaren 11tik aurrera.

Baina baita bestelako jardueraz ere. Sutegin, Gloria Latasak meteorologia kontuak jorratuko dituen hitzaldia hor dago. Baita ekimenaren izenarekin guztiz bat datozen mendi irteerak ere. Hilaren 15ean, Oiartzundik Arantzarako bidea oinez egin eta Arantzako Aterpetxean bazkaria izango da. Unea, antolatu duten lehiaketako sariak banatzeko baliatuko dute.

Andatzakoak aurten ere gaztetzoez ez dira ahaztu eta haientzat mendi irteera prestatu dute abenduaren 16rako. Goizeko 9:00etan irtengo dira Kiroldegi ataritik.

Asegurua egiteko aukera

Mendiko aseguru egiteko bi aukera eskaintzen ditu Andatza Mendi Elkarteak: asteartero 20:30etan, udal-tertxe ondoan, DYAreko egoitza azpira hurbilduta. Bestela, Mendi Astean atera daiteke, iluntzeko 19:00etik aurrera, Sutegin. Informazio gehiago, elkartearen e-postara idatzita eskura daiteke: andatzake@usurbil.com



ABENDUAREN 16AN, HAURRENTZAKO MENDI IRTEERA ANTOLATU DU ANDATZA MENDI ELKARTEAK.

Egitaraua, egunez egun

ABENDUAK 11, 12, 13

“Bidaia eta mendi irteeren argazki eta bideo lehiaketa”-ra aurkezturiko lanen emanaldia: Adarra, Abaguneak, Senegal, Amalurri eskutik helduta, Tailandia, Txile: herrialde lehortua eta Udarregiko mendi taldearen irteerak. Sutegiko auditorioan. Iluntzeko 20:00etan. Sarrera doan.

ABENDUAK 14 OSTIRALA

Metereologiari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Gloria Latasa. Sutegiko auditorioan, iluntzeko 20:00etan. Sarrera: doan.

ABENDUAK 15 LARUNBATA

Mendi ibilaldia: Oiartzun-Arantza. (Izen-ematea Mendi Astean, abenduaren 11 eta 12an edo andatzake@usurbil.com helbidean).

Irteera goizeko 8:30ean kiroldegi



Arantza

ABENDUAREN 15EAN OIARTZUN-ARANTZA IRTEERA OSATUKO DUTE.

aurretik.

Mendi ibilaldiaren ondoren, bazkaria izango da Arantzako Aterpetxean.

Bazkalostean, “Bidaia eta mendi irteeren argazki eta bideo lehiaketa”-ko sari-banaketa egingo da.

ABENDUAK 16 IGANDEA

Haurrentzako mendi-irteera.

Irteera: goizeko 9:00etan Kiroldegi aurretik.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. © 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

☎ 639 653 480

GARRAIOAK
Txema Azurmendi
kamioi-garabia

Industri eta iragarki
SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA

Kamistetan, inprimakeria

PSU

943 371 954
UGALDEA POL.36-2-USBIL

Urte amaiera polita herriko judokentzat

Usurbil Judo Taldeko kideek hara eta hona jarraitzen dute. Azaroaren 25ean senior mailako Euskadiko judo txapelketa izan zuten eta 15 dominekin itzuli ziren etxera. Joan den asteburuan, berriz, Asturiasko Mieres herrian jokatu zen VIII. Torneo Villa de Mieres txapelketan izan ziren infantil mailatik hasi eta senior maila bitarteko judokak eta hemen ere emaitza onak lortu zituzten.

Oreretan izan zen azaroaren 25ean senior mailako Euskadiko Judo txapelketa. Azken urteetan nagusi izan dira herriko judokak honelako txapelketetan eta aurten ere ez dute hutsik egin. Esteban Arrillagak zuzendutako taldearentzat ohikoa bihurtu da domina sorta batekin etxera itzultzea. Mutilek erabateko nagusitasuna erakutsi zuten, maila batean izan ezik, beste guztietan urrezko dominak lortu baitzituzten. Neskak ere ez ziren atzean gelditu eta 4 urrezko domina eskuratu zituzten.

Mutilei dagokionez, -81 Kg. izan zen lehen postua lortu ez zuten maila bakarra, ordezkariarik ez baitzuten izan bertan. Gainerantzeko mailetan Euskadiko txapelaldun izan ziren eta bi azpitxapelaldun ere izan ziren. Andoni Aizpurua (-60 Kg.), Ibai Peña (-66 Kg.), Xabier Urkizu (-73 Kg.), Egoitz Mora (-90 Kg.) eta Mikel Ponga (+100 Kg.) izan ziren urrezko domina lepoan jartzea lortu zutenak. Aitzol Arrospidek (-73 Kg.) eta Josu Arrutik (+100 Kg.), berriz, 2. postuare-



ASTURIASKO MIERES HERRIAN JOKATU ZEN TXAPELKETAN ATERATAKO IRUDIA. 27 DOMINEKIN ITZULI ZIREN ETXERA.

kin konformatu behar izan zuten.

Emakumezkoak ere emaitza onak lortu zituzten Oreretan izan zuten hitzorduan. Jokoan zeuden 7 mailetatik bostetan garaipena lortu zuten Usurbil Judo Taldeko judoek. Oiana Blanco (-48 Kg.), Aiora Arrillaga (-52 Kg.), Jessica Romero (-78 Kg.) eta Mari Jose Sardon (+78 Kg.) izan ziren garaileak eta Sara Quijanok (-63 Kg.) eta Nerea Arrutik (-70 Kg.) brontzezko dominak eskuratu zituzten.

Bestalde, abenduaren 1ean VIII. Torneo Villa de Mieres txapelketan parte hartu zuten infantil, kadete, junior eta senior mailako herriko judo taldeko judoek. Asturias, Kantabria, Gaztela Leon, Valentzia eta Euskadiko judokak izan ziren txapelketa honetako protago-

nista nagusiak eta Usurbil Judo Taldeko adin desberdinetako 35 judoka izan ziren tatami gainean lehian aritu zirenak.

Esteban Arrillagaren esanetan emaitza onak izan dira orokorrean. "27 domina lortu genituen, urrezkoak 10, zilarrezkoak 8 eta brontzezkoak 9, 15 eta 20 urtez azpiko mailako judokak maila oso ona eman dute, baina seniorrak eta 17 urtez azpikoak daukagun mailaren azpitik ibili dira. Hala ere, gure helburuak bete dira. Elkarbizitza ekitaldi polita izan da eta giro bikainarekin gainera". Aipatzekoa da 15 urtez azpikoetan Beñat Aburuza eta Borja Elizalde usurbildarrek +66 Kg. mailan lortutako lehen eta hirugarren postuak.

JOSU ARANBERRI

Futbol taldeak atsedetik gabe "zubian"

Osteguna eta larunbata jai egunak badira ere, Usurbil Futbol Taldeak jardunaldi berri bati egin beharko dio aurre. 1. kadete mailako taldeak larunbatean jokatu du Harane futbol zelaian arratsaldeko 11.30etan hasita Sanse taldearen aurka. Erregional mailako bi taldeek, berriz, etxetik kanpo jokatu dute larunbat arratsaldean. 1. mailako taldeak Irunen Behobiaren aurka 15.30etan eta 2. mailako taldeak Seguran bertako taldearen aurka 17.30etan hasita. Neskek, berriz, ez dute jardunaldirik.



Autobus Orduetgia

Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
07.40	>>	08.05	08.15	08.25	06.45	06.55	07.05	>>	07.30
08.10	>>	08.35	08.45		07.15	07.25	07.35	>>	08.00
08.40	>>	09.05	09.15	09.25	07.45	07.55	08.05	>>	08.30
09.10	09.30	09.35	09.45		08.15	08.25	08.35	>>	09.00
09.40	>>	10.05	10.15	10.25	08.45	08.55	09.05	>>	09.30
10.40	>>	11.05	11.15	11.25	09.45	09.55	10.05	>>	10.30
11.40	>>	12.05	12.15	12.25	10.45	10.55	11.05	>>	11.30
12.10	12.30	12.35	12.45		11.45	11.55	12.05	>>	12.30
12.40	>>	13.05	13.15	13.25	12.45	12.55	13.05	>>	13.30
13.10	13.30	13.35	13.45		13.45	13.55	14.05	>>	14.30
13.40	>>	14.05	14.15	14.25	14.45	14.55	15.05	>>	15.30
14.10	14.30	14.35	14.45		15.45	15.55	16.05	>>	16.30
14.40	>>	15.05	15.15	15.25	16.30	16.40	16.50	>>	17.30
15.10	15.30	15.35	15.45		17.45	17.55	18.05	>>	18.30
15.40	>>	16.05	16.15	16.25	18.45	18.55	19.05	>>	19.30
16.40	>>	17.05	17.15	17.25	19.40	19.50	20.00	>>	20.30
17.40	>>	18.05	18.15	18.25	20.45	20.55	21.05	>>	21.30
18.10	18.30	18.35	18.45		21.15	21.25	21.35	>>	22.00
18.40	>>	19.05	19.15	19.25					
19.10	19.30	19.35	19.45						
19.40	>>	20.05	20.15	20.25					
20.15	20.35	20.40	20.50	21.00					
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45					
22.15	22.35	22.40	22.50	23.05					

00.00 Aiaro jarraitzen du

00.00 Aiarik dator

Larunbat, igande eta JAIEGUNETAN

Donostia	Urbil	Usurbil	Orio	Zarautz	Zarautz	Orio	Usurbil	Urbil	Donostia
08.00	08.20	08.25	08.35	08.45	06.45	06.55	07.05	07.10	07.30
09.00	09.20	09.25	09.35	09.45	07.45	07.55	08.05	08.15	08.40
10.00	10.20	10.25	10.35	10.45	08.45	08.55	09.05	09.15	09.40
11.00	11.20	11.25	11.35	11.45	09.45	09.55	10.05	10.15	10.40
12.00	12.20	12.25	12.35	12.45	10.45	10.55	11.05	11.15	11.40
13.00	13.20	13.25	13.35	13.45	11.45	11.55	12.05	12.15	12.40
14.00	14.20	14.25	14.35	14.45	12.45	12.55	13.05	13.15	13.40
15.00	15.20	15.25	15.35	15.45	13.45	13.55	14.05	14.15	14.40
16.00	16.20	16.25	16.35	16.45	14.45	14.55	15.05	15.15	15.40
17.00	17.20	17.25	17.35	17.45	15.45	15.55	16.05	16.15	16.40
18.00	18.20	18.25	18.35	18.45	16.45	16.55	17.05	17.15	17.40
19.00	19.20	19.25	19.35	19.45	17.45	17.55	18.05	18.15	18.40
20.00	20.20	20.25	20.35	20.45	18.45	18.55	19.05	19.15	19.40
21.00	21.20	21.25	21.35	21.45	19.45	19.55	20.05	20.15	20.40
22.00	22.20	22.25	22.35	22.45	20.45	20.55	21.05	21.15	21.40
22.30	22.50	22.55	23.05	23.15	21.45	21.55	22.05	22.15	22.40

LARUNBAT GAUETAN

00.00	>>	00.25	00.35	00.45
01.00 ^M	>>	01.25 ^M	01.35 ^M	01.45 ^M
02.00	>>	02.25	02.35	02.45
04.00	>>	04.25	04.35	04.45
05.00 ^M	>>	05.25 ^M	05.35 ^M	05.45 ^M
06.00	>>	06.25	06.35	06.45

LARUNBAT GAUETAN

23.15	23.25	23.35	>>	00.00
00.15 ^M	00.25 ^M	00.35 ^M	>>	01.00 ^M
01.15	01.25	01.35	>>	02.00
02.15 ^M	02.25 ^M	02.35 ^M	>>	03.00 ^M
03.15 ^M	03.25 ^M	03.35 ^M	>>	04.00 ^M
04.15 ^M	04.25 ^M	04.35 ^M	>>	05.00 ^M
05.15	05.25	05.35	>>	06.00

00.00 Iratzi (ANTON-NET) baxeri

00.00 Udaberriak 08/06/23-08/09/07

00.00 Nagare bokari

Zarautz	Orio	Usurbil	Donostia	Donostia	Usurbil	Orio	Zarautz
06.08	06.15	06.24	06.39	05.47	06.03	06.14	06.20
06.38	06.45	06.54	07.09	06.17	06.33	06.44	06.50
07.08	07.15	07.24	07.39	06.47	07.03	07.14	07.20
07.38	07.45	07.54	08.09	07.17	07.33	07.44	07.50
08.08	08.15	08.24	08.39	07.47	08.03	08.14	08.20
08.38	08.45	08.54	09.09	08.17	08.33	08.44	08.50
09.08	09.15	09.24	09.39	08.47	09.03	09.14	09.20
10.08	10.15	10.24	10.39	09.47	10.03	10.14	10.20
11.08	11.15	11.24	11.39	10.47	11.03	11.14	11.20
12.08	12.15	12.24	12.39	11.47	12.03	12.14	12.20
12.38	12.45	12.54	13.09	12.17	12.33	12.44	12.50
13.08	13.15	13.24	13.39	12.47	13.03	13.14	13.20
13.38	13.45	13.54	14.09	13.17	13.33	13.44	13.50
14.08	14.15	14.24	14.39	13.47	14.03	14.14	14.20
14.38	14.45	14.54	15.09	14.17	14.33	14.44	14.50
15.08	15.15	15.24	15.39	14.47	15.03	15.14	15.20
15.38	15.45	15.54	16.09	15.17	15.33	15.44	15.50
16.08	16.15	16.24	16.39	15.47	16.03	16.14	16.20
16.38	16.45	16.54	17.09	16.17	16.33	16.44	16.50
17.08	17.15	17.24	17.39	16.47	17.03	17.14	17.20
17.38	17.45	17.54	18.09	17.17	17.33	17.44	17.50
18.08	18.15	18.24	18.39	17.47	18.03	18.14	18.20
18.38	18.45	18.54	19.09	18.17	18.33	18.44	18.50
19.08	19.15	19.24	19.39	18.47	19.03	19.14	19.20
19.38	19.45	19.54	20.09	19.17	19.33	19.44	19.50
20.08	20.15	20.24	20.39	19.47	20.03	20.14	20.20
21.08	21.15	21.24	21.39	20.47	21.03	21.14	21.20
22.08	22.15	22.24	22.39	21.47	22.03	22.14	22.20
22.38	22.45	22.54	23.09				

00.00 Astelehenerik Ostiralera LANEGUNETAN 00.00 Astelehenerik Igandera eta JAIEGUNETAN

00.00 Udaberriak 08/06/23-08/09/07

Bezeroen arretarako bulegoa ☎ 902 54 32 10 www.euskotren.es ⓘ atcliente@euskotren.es

Eguneko goardiako farmaziak

Abenduak 5, asteazkena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 6, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Abenduak 7, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 8, larunbata
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 9, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Abenduak 10, astelehena
Urbistondo, San frantzisko 1, Lasarte

Abenduak 11, asteartea
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Abenduak 12, asteazkena
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Abenduak 13, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Abenduak 14, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Abenduak 15, larunbata
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil

Abenduak 16, igandea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
J. Etxebeeste Farmazia (22:00-09:00)
Elkano 2 kalea, Hernani 943 55 20 87

2007ko egutegia noaua.com webgunean

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55*/ 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazaatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00 (T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Tren Orduetgia

Agenda !!

Abenduak 7 ostirala

- Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria Santuenea elkartearen. Hurrei zuzendutako saioa, 18:00etan.

Abenduak 8 larunbata

- Usurbilgo Odol Emaileen Elkartearen bazkaria Atxega jauregian.
- "Zakur bat ezkutaturik" klown ikuskizuna Santuenea elkartearen, 19:30ean.

Abenduak 10 astelehena

- Makilaje tailerra Santuenea elkartearen. Prezioa 10 euro. Izena emateko: 943367262/ 943365031 (Abenduaren 5ean asteazkena, izena emateko azken eguna).

Abenduak 11/ abenduak 13

- Mendi Astearen hasiera. 20:00etan Bidaia eta mendi irteeren argazki eta bideo lehiaketara aurkezturiko lanen emanaldia.

Abenduaren 15ean,

EAE-ANVren ekitaldia

Datorren urteko hauteskondeei begira, EAE-ANVk independentziaren aldeko aldarria egin zuen duela aste batzuk. Ordutik, independentziaren aldeko sinadura bilketa egin da. Usurbilen, 160 herritarren testigantzak ere bildu dira. Abenduaren 15ean arratsaldeko 19:00etan, atxikimenduen kanpaina amaitutzat emango da ekitaldi baten bitartez. Testigantzekin osatutako bideoa eskainiko da frontoian eta ondoren argazki erraldoi bat aterahi da. Usurbilgo EAE-ANVk bertara azaltzeko deialdia egin du.

Zumetaren lan berrienak

Donostiako Kur arte galerian ikusgai

Jose Luis Zumetaren bakarkako Erakusketa berri bat antolatatu du Donostiako Kur arte galeriak. Urtarrilaren 23a bitarte ikusgai izango dira Zumetaren lan berrienak. Guztira, 30 artelan berri.

KUR ARTE GALERIA, Zurriola plazan, 6. zenbakian. Erakusketa astelehenetik larunbatera zabalik, 11:00etatik 13:30ak arte eta 17:00etatik 21:00ak arte.

Tel: 943 28 07 62.



DONOSTIAKO KUR ARTE GALERIAN JOSE LUIS ZUMETA MARGOLARIAREN 30 ARTELAN BERRI BILDU DIRA.

Sutea Etxebeste kalean

Aurreko ostegunean, azaroak 27, Sutea izan zen. Goizeko 7:30ean piztu zen sua Etxebeste kalea 7 etxean. Udaltzaingoak NOAUARI adierazitakoaren arabera, gainkarga elektriko baten ondorioz piztu zen sua bigarren pisuan. Suaren ondorioz, kixkalita geratu zen etxearen egongela nagusia (irudian). Su honek hirugarren pisuari ere eragin zion. Batez ere, leiho ondoko gela bati. Bigarren solairuko bikotea Donostia Ospitalera eraman behar izan zuten eskuak erreta, Herrizaingo Sailak eta DYAK jakinarazi dutenez. Etxeak egurrezko egitura duen arren, suteak ez zuen etxearen hezurdura kaltetu.

Herrizaingo Sailak aditzera eman zuenez, etxe barruan ke handia zegoela eta, bikotea, euren semea eta zakurra balkoira aterazi ziren. Goizeko



EGOERA HONETAN GERATU ZEN SUA PIZTU ZEN ETXEBIZITZAREN EGONGELA.

7:30ean izan zen. Balkoitik, emakumea eta haurra kalera jaitsi zituzten eskaileraren bitartez eta udaleko langileen laguntzarekin.

Zenbait minuturen ondoren, gizona eta zakurra erreskatatu zituzten suhiltzaileek. 08:00etan itzali zuten sutea.

ALIPROX

Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tif 36 21 64
USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ZUBIAURRENEA 4 USURBIL
ileapaindegia
mistoa
943361951

ETXEBIZITZA

- Hiru logelatako etxe baten bila gabiltza Usurbilen. Agentziarik ez. 616064059.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. Telefonoa: 943 36 13 83.
- Pisu bat salgai. Santuenea auzoan, 16 zenbakia 4. pisua, 33 milioitan (negoziazarria). Interesatuak: 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Hiru logeletako etxe bat salgai, kaxkoan. Igogailua, ganbara eta balkoiduna. 655 72 06 66.
- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. Telefono zenbakia: 943 36 02 45 / 661 702 708.
- Salgai. Kaxkoan, 3 logelako etxea trastero-arekin. Garajea aukeran. 685731792
- Bi gela edo gela bateko apartamentu baten bila nabil Usurbilen. 687 650 066 (Maria).

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje itxia salgai Etxe Zurin. 14 metro karratuko, entreplantarekin. Prezioa: 15.000 euro. 646 717 676.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Moto bat saltzeko, Richoo RR beltza, 49 cm3. 649 302 733 (David). Ondo zaindua, "extra" asko.
- Estrenatu gabeko Aprilia Scoter SR 50 motoa saltzen dut. 649 356 081.
- Land Rover 4.6 (lp) todoterrenoa salgai. 8 urte. 455.000 km. Oso ondo zainduta. Extra asko: gps, vdo, telebista eta telefonoa. Ruben. Tfno. 609408401.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- LH edota DBHko ikasleei klase partikularak emateko prest egongo al zinateke? Udaregi ikastolan, lan hori beteko luke ten pertsonekin zerrenda bat osatzen ari

gara. Interesatuak pasa Ikastolako zuzendaritzatik.

- Ingelera emango duen irakasle bat behar da Zubietan, astean behin edo bitan klaseak emateko. 943 36 07 59 (Pello).
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarteka umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. Irailitik aurrera hasteko. 627278907.
- Urte osoz, astebukaeratan lan egiteko zerbitzari baten bila gabiltza. 943366710.

Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 636934237.
- Etxeko lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Goizez edo arratsaldez lan egiteko prest. Deitu: 679 79 61 01.
- Emakume euskaldun bat eskaintzen da, egunero lauzpabost ordu lan egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 687348223.
- Pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 677343326
- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko. 630274906
- Emakume bat eskaintzen da umeak edo pertsona helduak zaintzeko. Telefono zenbakia: 676221378.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporrak, ospakizunak, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. Telefono zenbakia: 943555835/ 617 242 660.
- Etxeko lanak egin, pertsona helduak zaindu edo jabetxe batean lan egiteko prest nago. 610 669 335.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zein pertsona helduak

zaintzeko. 618434990.

- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 620 646 769.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Usurbilgo gazte kuadrila bat gara eta lokal bat nahi genuke alokatu herrian. 943360744.
- Euskotreneko autobusetan pensionisten txartela galdu dut. Txartelean nire izena agertzen da Jose Luis San Sebastian. Aurkitu baduzu eskertuko nizuke 943371471 telefonora deitzea.
- Azaroaren 18an Decathlon markako patinete bat ahaztu zitzaigun Artzabalgo parkean (edo inguruan). Eskertuko genuke aurkitu duenak telefono honetara deituko balu: 685761079
- Zilar edo urre zuriko lepoko bat topatu genuen uda partean eta udaltzaingoa utzi dugu. Galdu duenak han galde.
- Kotxeko aulkitxoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 110 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginikoak. 943 36 20 49.
- Lur zatitxo bat hartuko nuke, baratz txiki bat osatzeko. 615744076.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Benelli repetidora salgai 600 euro. 645 735750.
- Mercedes Vito Mixta 112 CDI bat saltzen dut. Aire egokitua, kristal tintatuak, bigarren bateria, berogailu autonomoa... Dena hornitua, 610 431 999.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.
- Snow egiteko tabla bat fijazioekin salgai. Tf: 679 185 102.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak

Pottolontzio!!

Astelehen buruzuria tokatzen zaigu aurten eh!! Baina hala ere ederki asko ospatuko

dugu zure eguntxoa Oiertxo. Muxu handi handi bat etxeko guztien partez. Abenduaren 4an belarriak gorri gorri jarriko dizkizugu. Zorionak!



egunean!

Zorionak Patxi ta Eider!

Zorionak biei amatxoren partez! Besarkada handi bana eta txokolatezko muxuak zuen urtebetetze



Zorionak

Xuban!

Abenduaren 4an egin dituzu 9 urte. Zorionak eta besarkada handi bat Ekine eta gurasoen partez!

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

Santo **Thomas** eguna



dastaketak,
lehiaketak,
azoka...

*Marrazteko egunak dira
zeurek bereziki gustatzen dituzten
egunak. Auzan eta jarduera
libreko egunak.*



Abenduaren **16an**
igandegoizez



USURBILCO
SUGARDO
EGUNAREN
LEGUNAK

Noaua!!
www.noaua.com

JOSE AZPURUA
UNANJE
TELATUAK - FATXADAK
Obaina kalea 24. Astoasa
943 69 68 52
620 800 186

URDINTZI S.L.
IGELTSERITZA
943 367 264
649 435 475
649 435 476

Errazkin S.L.
IGELTSERITZA OROKORRA
943 372 679
649 435 470
Kafe nagusia 47, behe A

Josue
Aranzazistroki
943 360 550
606 372 105
Juan Jose Errota 7. Astoasa

XUKIN
IGELTSERITZA OROKORRA
663 087 671
Erronka Txiki 6. 1B

Antonio
URRIZOLA
Tel: 943 376 415
Faxa: 943 360 510
Astasuain Industrialdea, 3

BEREZIARTUA
S.L.
egurra eta
egur-aluminiozko
leihoak - eskailerak
Aginaga 943 371 571

BARRENETXE
Balsamendi Arrogi, Imanol
Tel. 943 362 664
Faxa 943 374 002
Barren Etxe Kalea
ZUBIETA

Josetxo
Ikatzeta
687 951 225

Lataillade
gasa, berogintza
klimatizazioak eta
mantenimendua
609 888 021

portularrume
Bainuko altzairuak
Manparak
943 364 637

JOSEBA
ARANGUREN
943 830 072
659 883 912

Javier
Orbegozo
Gasa-berokuntza
659 602 789
Erronka Txiki 13. 3era

FERNANDO
PINTURAK
enpapelaketak
lurzoruak...
943 366 014

IZAGIRRE
943 365 095
609 068 111
Goiz 424 ETXEA 37
LALEZAR

ARGILAN
Jose Luis Borda Zugasti
Inbentario materialak eta partaketa
943 361 380
629 272 859
Burdin berrin 3 behe

ofizioen gida

IGELTSERITZA

AROZTEGIAK

ITURGINTZA

PINTURAK

ELEKTIZITATEA

Gida honetan azaldu nahi baduzu: 943 360 321 • publizitatea@noaua.com